

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 682/2024 Erabakia, azaroaren 26koa. Onespena ematea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko dirulaguntza lerroaren 2024ko ekitaldirako eta Kontseiluaren uztailaren 16ko 429/2024 Erabakiaren bidez onetsitako deialdiaren ebazpenari

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 18ko 11/2024 Foru Dekretuaren bidez jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko dirulaguntzen lerroaren oinarri arautzaileak onetsi ziren. Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 16ko 429/2024 Erabakiaren bidez dirulaguntza lerro horren 2024ko deialdia onetsi zen.

Ebazpen proposamen hau bat dator oinarri horietan ezartzen denarekin, hain zuzen ere honako apartatu hauetan ezartzen denarekin: "dirulaguntzak emateko prozedura. Eskaerak baloratzeko eta dirulaguntzak emateko irizpideak. Dirulaguntzen zenbatekoa" eta "eskaerak izapidetzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa. Eskaeren epeak eta epe barruan ez ebaztearen ondorioak".

Lerro honetako laguntza jaso dezaketen jarduera motak:

1. mota: Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea, kontsumoen kontrola, energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia jarduketan planak, hiri mugikortasuneko planak edo klima aldaketara egokitzeko eta arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez.

2. mota: Monitorizazio ekipoak, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitutako energia benetako eskaerara egokitzeko.

3. mota: Eguzki argiteria publikoko ekipamendua.

4. mota: Lanparak ordeztzea, argiteria publikoan eta toki erakundeetako eraikinetan energia eraginkortasuna handitzeko.

5. mota: Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak bai haiekin lotutako biltegi-ratze instalazioak, haiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuen energia eskariari erantzuteko.

6. mota: Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektu teknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa, aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektriko azpiegiturak ere, hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzuen erabilerarako.

7. mota: Ibilgailu elektrikoak (bizikletak barne) kargatzeko puntuak ezartzea. Kargatzeko puntuak erabilera publikora bideratuta egongo dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuen zerbitzura.

8. mota: Ibilgailu elektrikoak eskuratzea (bizikleta elektrikoak barne) erakunde publikoentzat, berek erabiltzeko.

Ezarritako epealdiaren barruan 40 erakundek 48 dirulaguntza eskaera aurkeztu dituzte beste horrenbeste jarduketa egiteko.

Erakunde eskatzaileetako hamabik bina jarduketa egiteko dirulaguntza eskatu dute:

- Sabandoko Administrazio Batzarrak eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrak.
- Bastida, Harana, Mañueta, Dulantzi, Amurrio eta Aguraingo udalek.

Ondoko tauletan eskatutako jarduketak erakunde motaren eta kuadrillaren arabera multzokatu dira:

ERAKUNDE MOTA	JARDUKETEN KOPURUA
Administrazio batzarrak	24
Udalak	24
Guztira	48

KUADRILLAK	JARDUKETEN KOPURUA
Aiaraldea	6
Añana	5
Gorbeialdea	7
Lautada	11
Guardia-Arabako Errioxa	5
Mendialdea	14
Guztira	48

Dirulaguntzari uko egiteko bost eskaera hauek onartu dira: Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00020), Kontrastako Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00028), Estavilloko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00040) eta Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00043 eta SENENT-2024/00044).

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, antzeman zen zenbait eskaeratan falta zela oinarrietan eskatutako dokumentazioa. Horrenbestez, erakunde eskatzaileei eskatu zitzaien aipatutako dokumentazioa aurkez zezatela, eta ohartarazi zitzaien aurkeztu ezean pentsatuko zela eskaera bertan behera utzi zutela, aurretik ebazpena emanaz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan ezartzen duen bezala.

Amurrioko Udalari jakinarazpen elektronikoaren bidez eskatu zitzaion zuzendu zitzala aurkeztutako eskaerak (esp.: SENENT-2024/00041 eta SENENT-2024/00042) jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun igaro baino lehen. Epealdi horretan ez zuenez aurkeztu eskatutako dokumentazioa, eskaeretan atzera egin zuela ebatzi zen.

Eskaerei aurre egiteko 250.000,00 euro erabiliko dira gehienez Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 40208. G/456400/76290401 partidaren kargura ("Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak"). 2023ko aurrekontua 2024ko ekitaldirako luzatuta dago. Diru kopuru hori honela banatuko da jarduketa moten arabera:

JARDUKETA MOTA	HASIERAKO KONTSIGNAZIOA
1	50.000,00 euro
2	5.000 euro
3	20.000 euro
4	15.000 euro
5	110.000 euro
6	20.000 euro
7	20.000 euro
8	10.000 euro

Aurrekontuaren erdia (125.000,00 euro) Arabako Lurralde Historikoko administrazio batzarren eskaerarako izango da eta beste erdia (125.000,00 euro) udalen eskaerarako. Baldin eta, aurkeztutako eta balidatutako eskaeren arabera, aurrekontu erabilgarriaren guztizkoa lortzen ez bada, adibidez, administrazio batzarren kasuan, soberakin hori udalen aurrekontua handitzeko erabili ahal izango da, eta alderantziz.

Laguntza lerroaren barruan, honako ekintza mota hauek diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehuneko eta dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hauen arabera, kontuan hartuta ekintza mota bakoitzaren zenbateko ekonomikotik erdia administrazio batzarretarako erabiliko dela eta beste erdia udaletarako, eta ekintza mota bakoitzean soberakinik balego, aurreko puntuan adierazitako moduan jokatu litzatekeela:

JARDUKETA MOTA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENEO ZENBATEKOA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN GEHIENEO EHUNEKOA
1. mota	6.000 euro	% 85
2. mota	3.000 euro	% 85
3. mota	20.000 euro	% 60
4. mota	5.000 euro	% 60
5. mota	40.000 euro	% 60
6. mota	6.000 euro	% 60
7. mota	5.000 euro	% 60
8. mota	9.000 euro (1.500 euro bizikleta elektrikoetarako)	% 30

Balorazio Mahaiak aurkeztutako eskaerak aztertu ditu eta puntuazioa eman die oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen arabera; gero, puntuazioak kontuan hartuz, erabaki du zer eskaera hartuko diren aintzat eta zeintzuk geratu diren bazterrean aurrekontuan baliagarri dagoen dirua agortzeagatik.

Hauek dira balorazio irizpideak:

A) Proposatutako ekintzaren kalitatea eta bideragarritasun teknikoa. Proposatutako denbora programazioaren edukia, xehetasun maila, jarduketaren justifikazioa (aurreko eta ondorengo konparazioa) eta koherentzia baloratuko dira, gehienez 40 puntu.

B) Inbertsioaren efizientzia (guztira lortutako energia aurrezpena, kostuarekin erlazionatuta), gehienez 20 puntu.

C) Udalaren plan energetikoan, Tokiko 2030 Agendan, energia jasangarriaren ekintza planean, klimaren eta energiaren aldeko ekintza planean edo toki erakundeak onartutako klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko beste plan batzuetan sartutako plana edo ekintza izatea: 25 puntu gehienez.

D) Erakunde onuradunak 1.000 biztanle baino gutxiago baditu: 15 puntu gehienez.

Ezetsi egingo dira gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten jarduketak.

Aurkeztutako eskaerak baloratu dira eta ondoren lortutako puntuazioaren arabera ordenatu dira; laguntzak ordena horretan esleitu dira, jarduketa mota bakoitzerako aurrekontuan ezarritako zuzkidura agortu arte. Emango diren dirulaguntzen zerrenda I. eranskinean dago ("Emandako dirulaguntzak").

Ondoko tauletan guztira emandako dirulaguntzen zenbatekoa zehazten da, jarduketa motaka xehatuta:

MOTA	DIRUL ONARTUTAKO JARDUKETEN KOP.	EMANDAKO DIRUL.	PORTZENTAJEA
1	0	0,00 €	% 0,00
2	1	3.000,00 €	% 1,22
3	8	30.892,71 €	% 12,54
4	11	43.403,31 €	% 17,62

MOTA	DIRUL ONARTUTAKO JARDUKETEN KOP.	EMANDAKO DIRUL	PORTZENTAJEA
5	14	159.149,27 €	% 64,60
6	2	7.710,00 €	% 3,13
7	1	2.191,20 €	% 0,89
8	0	0,00 €	% 0,00
Guztira	37	246.346,49 €	% 100,00

KUADRILLAK	ADJUDIKATUTAKO DIRULAGUNTZEN KOPURUA
Aiaraldea	3
Añana	3
Gorbeialdea	7
Lautada	11
Guardia-Arabako Errioxa	5
Mendialdea	8
Guztira	36

Aipatzekoa da Hermuko Administrazio Batzarrak, akats baten ondorioz, 4. jarduketa mota eskatu duela "argiteria publikorako eguzki luminariak instalatzeko", baina, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 3. jarduketa mota dagokio. Hori dela eta, zuzendu eta 3. motari legezkiokoen gehieneko zenbatekoak kontuan hartu dira. Era berean, Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak, akats baten ondorioz, 3. jarduketa mota eskatu du "luminariak ordeztu eta konektatzeko", baina, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 4. jarduketa mota dagokio. Hori dela eta, zuzendu eta 4. motari legezkiokoen gehieneko zenbatekoak kontuan hartu dira.

Laburbilduz, 36 jarduketak jasoko dute dirulaguntza; horietatik 16 administrazio batzarrenak dira eta 20 udalenak.

Emandako dirulaguntza bakoitzaren jarduera motaren arabera esleipena erakunde onuradunek eskaera adierazitako gastu aurreikuspenaren arabera egin da.

Ondorioz, emandako kontsignazioa ez dator bat hasierakoarekin. Beraz, hasieran jarduketa moten arabera esleitutako zenbatekoak aldatu behar dira, emandako dirulaguntzen gastu aurreikuspenekin bat etor daitezzen; hona:

MOTA	HASIERAKO KONTSIGNAZIOA	KONTSIGNAZIO BERRIA	ALDAKETA
1	50.000,00 €	0,00 €	— 50.000,00 €
2	5.000,00 €	3.000,00 €	— 2.000,00 €
3	20.000,00 €	38.953,86 €	18.953,86 €
4	15.000,00 €	43.403,31 €	28.403,31 €
5	110.000,00 €	145.699,83 €	35.699,83 €
6	20.000,00 €	7.710,00 €	— 12.290,00 €
7	20.000,00 €	2.191,20 €	— 17.808,80 €
8	10.000,00 €	0,00 €	— 10.000,00 €
Guztira	250.000,00 €	240.958,20 €	— 9.041,80 €

II. eranskinean ukatutako dirulaguntzen zerrenda dago, bakoitzak ukatzeko arrazoia zehaztuta daukala.

Aramaioko Udalaren eskaera alkatetzaren dekretua sasoiz ez aurkezteagatik ukatu da.

Aguraingo Udalari ukatu egin zaio eskaera bat "errromesen aterpetxearen estalkian plaka fotovoltaikoak instalatzeko", beste eskaera bat erregistratu baitu jarduketa mota berarengatik.

Navarreteko Administrazio Batzarrak laguntza eskatu du "hondakin uren araztegirako (HUA) eta zentro sozialerako (argiteria publikoa) instalazio fotovoltaikoa eta biltegitratze bateriak instalatzeko". Jarduketa mota bereko bi kokaleku desberdin hartzen dira kontuan, eta, horregatik, HUAren zatirako baino ez zaio ematen laguntza, eta dirulaguntza doitu egiten da gainfinantzaketarik egon ez dadin.

Gainera, Sabandoko Administrazio Batzarraren bi eskaera hauek ezetsi dira:

- Esp.: SENENT-2024/00016: Sabandoko Administrazio Batzarraren District Heating galdararen aretoa hobetzeko obren proiektua idaztea.
- Esp.: SENENT-2024/00017: Sabandoko Administrazio Batzarraren District Heating galdararen aretoa hobetzeko obrak.

Berokuntza komunitarioaren sistema (District Heating) beroa galdara aretotik zehaztutako kontsumo puntuetara kaleetan zehar lurpeko hodian bitartez banatzeko sarea da. 2018. urtean gizarte etxea District-Heating sistemara konektatu zen. Gaur egun 22 etxebizitza hornitzen ditu (37 pertsona, partikularrak). Oinarri arautzaileen DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK ETA BALDINTZA GEHIGARRIAK ataleko 3. puntuan haxe ezartzen da: "Energia berriztagarrien aprobetxamendurako aurreikusitako instalazioak eta ekipamenduak (5. jarduketa mota) eta haiei lotutako proiektuak (6. jarduketa mota) soilik diruz lagundu ahal izango dira, kontsumo eta erabilera publikorako badira. Horretarako, toki erakunde eskatzailearen kontsumoak bakarrik hartuko dira kontuan."

Galdara aretoa Sabandoko gizarte etxean dago, baina proiektuaren izaera, banaketa sarea-
ren trazadura eta ekipoen neurriak kontuan hartuta ageriko da District Heating sistemara konektatu daitezkeen kontsumitzaile nagusiak herritarrak izango direla. Horregatik, proiektu horren xede publikoa oso txikia da gainerako kontsumo puntuen aldean (herritarrak) eta Sabandoko Administrazio Batzarrak eskatutako dirulaguntza ukatzen da.

Halaber, Lasierrako Administrazio Batzarrak aurkeztutako eskaera (esp.: SENENT-2024/00030) ezetsi da: "Lasierrako Administrazio Batzarraren eguzki instalazioaren efizientzia hobetzea". Kasu honetan instalazio fotovoltaikoaren azken kontsumitzailea ez da toki erakundea bera, baizik eta herritar partikularrak eta Mendi Haran ur partzuergoa. Horregatik, Lasierrako Administrazio Batzarrak eskatutako dirulaguntza ukatzen da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horrenbestez, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Amurrioko Udala bere bi eskaeretan atzera egintzat ematea, ez baitu aurkeztu eskatutako dokumentazioa.

Bigarrena. Dirulaguntzari uko egiteko eskaera hauek ez dira onartzen: Durruma Kanpezuko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00020), Kontrastako Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00028), Estavilloko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00040) eta San Roman Kanpezuko Administrazio Batzarra (SENENT-2024/00043 eta SENENT-2024/00044).

Hirugarrena. Laguntza horiek ematea I. eranskinean (Emandako dirulaguntzak) ageri diren erakundeei, kasuan kasuko ekintzak egiteko. Zenbatekoa: 240.958,20 euro. Oinarri arautzaileetan adierazten den bezala, adjudikaziodunek dirulaguntzaren baldintzak onartzen dituztela ulertuko da, baldin eta ebazpena jakinarazi eta 10 egun baliodun igaro baino lehen dirulaguntzari idatziz uko egiten ez badiote.

Laugarrena. Dirulaguntza hori ematea Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldirako luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko 40208. G/456400/76290401 "Energia eraginkortasunerako dirulaguntzak" partidaren kontura.

Bosgarrena. II. eranskineko erakundeei eskatutakoa ukatzea bertan adierazitako arrazoierengatik.

Seigarrena. Jarduketa egin dela frogatu eta 11/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean azaltzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren ordainduko dira dirulaguntzak. 429/2024 Erabakiaren bosgarren apartatuaren arabera, dirulaguntza ordaintzeko eskatzen den dokumentazioa 2024ko abenduaren 30erako aurkeztu behar da.

Zazpigarrena. Ordainketa egiteko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko eta gauzatzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 30a izango da.

Zortzigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bederatzigarrena. Ebazpen honek amaiera emango dio administrazio bideari, eta Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan aurkaratu ahal izango da ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak, 44. eta 46. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria

MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA



I. eranskina. Emandako dirulaguntzak

Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENENT-2024/00027	90,00	5	ELTZIEGOKO UDALA	Aerotermia monoblock kosner Aquaris hornitzea eta Eltziegoko udalategian instalatzea	12.230,56 €	7.338,34 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00025	85,00	4	IRURAIZ-GAUNAKO UDALA	Lanturri eraikin soziokulturalerako argien ordezkari Ledak ipintzeko proiektua	3.075,00 €	1.845,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00002	80,00	5	AGURAINGO UDALA	Bilketa pneumatikoaren zentrala dagoen eraikineko estalkian plaka fotovoltaikoak jartzea	19.782,14 €	11.869,28 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00037	74,90	5	AIARAKO UDALA	Energia fotovoltaikoko instalazio bat abian jartzea Etxaurren ikastolan, autokontsumorako	62.829,64 €	25.131,85 €	Udalaguntza 2023ko laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko
SENENT-2024/00029	72,95	4	ZUIAKO UDALA	Bitorianoko (ZUIA) argi publikoak berritzeko proiektua	18.925,14 €	5.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENENT-2024/00045	70,57	4	ZIGOITIKO UDALA	Zentro soziokulturalaren barruko argiak berritzeko lanen 1. fasea: Zubialde eta Gorbeia aretoak	10.736,94 €	5.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENENT-2024/00034	70,20	5	ARTZINIEGAKO UDALA	Arteko Gure Ama HELH ikastetxean instalazio fotovoltaikoa abian jartzea, autokontsumorako, soberakinaren konpentsazioarekin	30.334,83 €	12.133,94 €	Udalaguntza 2023ko laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko



Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENET-2024/00018	70,00	5	AGURAINGO UDALA	Plaka fotovoltaikoak ipintzea erromesen aterpetzeko estalkian	12.773,81 €	7.664,29 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00031	70,00	3	AUDIKAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki luminariak instalatzea	12.005,10 €	4.201,79 €	EREIN laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko
SENET-2024/00012	63,68	4	BERANTEVILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Gizarte etxeko led lanparak aldatzea eta elizako dorrean argiak jartzea	16.921,64 €	5.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENET-2024/00014	63,58	5	MAÑUETAKO UDALA	Parrekaturtako instalazio fotovoltaikoa	19.928,00 €	11.956,80 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00035	62,50	3	ABORNIKANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Eguzki farola bana ipintzea La Calleja eta Larrainzar kaleetan	8.140,00 €	4.884,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00001	61,27	5	ZAMBRANAKO UDALA	Instalazio fotovoltaikoa eta aeroterminiakoa Zambranako udalategian	33.410,59 €	20.046,35 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00032	60,57	4	DULANTZIKO UDALA	Usategi pasealekuko Led luminariak aldatzea	4.672,20 €	2.803,32 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00006	60,00	6	LAGRANGO UDALA	Laguntza teknikoa eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzeko.	2.850,00 €	1.710,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du



Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENET-2024/00033	60,00	6	DULANTZIKO UDALA	Udal kiroldegia autokontsumorako eguzki plaka fotovoltaiakoak ipintzeko proiektua idaztea	10.000,00 €	6.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENET-2024/00036	58,56	5	PAULGO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Panel fotovoltaiakoak jartzea Paulgo etxetako ura pumpatzeko etxolaren estalkian	8.322,00 €	4.993,20 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00007	56,05	4	URARTEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiteria publikoko luminaria berriak jartzea	10.174,50 €	5.000,00 €	LEADER 2022ko laguntza jaso du, baina ez dago gainfinantzaketarik Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENET-2024/00022	55,69	5	NAVARRETEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Planta fotovoltaiakoa eta energia biltzeko bateriak instalatzea, Navarreteko hondakin uren araztegiaren eta argi publikoaren funtzionamendu egokirako behar den energia elektrikoa sortzeko eta biltzeko	28.732,93 €	10.981,00 €	EREIN 2023 eta 2024ko laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko
SENET-2024/00010	55,49	4	HARANNEKO UDALA	Industrialdeko argi publikoak konpontzea eta abian jartzea	1.584,40 €	950,64 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00004	55,00	5	KINTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Autokontsumorako plaka fotovoltaiakoak jartzea	20.550,09 €	8.027,12 €	EREIN 2023ko laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko



Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENENT-2024/00011	55,00	3	HARANNEKO UDALA	Farolen bateriak berritzea	1.628,00 €	976,80 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00023	55,00	3	OZETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	6 eguzki farola ipintzea argi publikorik ez dauden toki sakabanatuetan	25.355,20 €	8.874,32 €	EREIN laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko
SENENT-2024/00013	51,25	3	HERMUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Argiterria publikorako eguzki argien instalazioa	37.317,60 €	5.000,00 €	EREIN 2024ko laguntza jaso du, baita ez dago gainfinantzetarik Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENENT-2024/00003	50,00	5	ANTOÑANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Aerotermiako sistema jartzea	15.924,84 €	9.554,90 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00008	50,00	3	BASTIDAKO UDALA	Bi eguzki farola ipintzea "El olmo" behatokian	1.556,00 €	933,60 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00009	50,00	4	BASTIDAKO UDALA	Padelko pistako sodio fokuak kendu eta LED argiak jartzea	6.677,01 €	4.006,21 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00015	50,00	7	MAÑUETAKO UDALA	Ibilgailu elektrikoa kargatzeko puntua jartzea	3.652,00 €	2.191,20 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du



Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENENT-2024/00024	50,00	5	MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRATZIO BATZARRA	Menagariako HUAren kontsumorako eguzki instalazio fotovoltaikoa jartzea	31.892,00 €	19.135,20 €	LEADER 2022ko laguntza jaso du, baina ez dago gainfinantzaketarik. Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00038	50,00	4	LEGUTIOKO ADMINISTRATZIO BATZARRA	Sainduri eta Kurutzalde auzotako argi publikoak berritzea	12.972,91 €	5.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENENT-2024/00047	50,00	5	MUNAINGO ADMINISTRATZIO BATZARRA	Pellet galdara instalatzea Munaingo kontzeju etxe berrirako	22.157,43 €	2.481,46 €	LEADER 2021eko laguntza, AFAREN Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko laguntza eta Donemiliagako Udalaren laguntza jaso ditu, baina ez dago gainfinantzaketarik. Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00019	47,77	5	AZILUKO ADMINISTRATZIO BATZARRA	Instalazio fotovoltaikoa herriko argi publikoetan eta kontzeju etxean	19.299,17 €	7.835,54 €	EREIN laguntza jaso duenez, dirulaguntzaren zenbatekoa doitu da gainfinantzaketa ez gertatzeko
SENENT-2024/00026	45,33	4	URKABUSTAIZKO UDALA	Izarrako plaza berriko lanparak aldatzea, argi publikoaren efizientzia energetikoa hobetzeko	6.330,24 €	3.798,14 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENENT-2024/00005	45,00	2	KANPEZUKO UDALA	SENPA telekudeaketako sistema, Kanpezu	6.263,50 €	3.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du



Esp.	Punt.	Mota	Erakundea	Jarduketa	Diruz lagundu daitekeen aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Oharrak
SENET-2024/00039	45,00	4	URIBARRI GANBOAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Luminariak aldatzea eta konektatzea	34.077,52 €	5.000,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen zenbateko handiena lortu du
SENET-2024/00046	45,00	3	ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA	Eguzki argiztapeneko elementuak hornitzea eta Langara Ganboan ipintzea	8.535,00 €	5.121,00 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du
SENET-2024/00021	40,00	3	BIKUNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Bi eguzki farola ipintzea	1.502,00 €	901,20 €	Mota honetarako jaso daitekeen portzentaje handiena lortu du

II. eranskina. Ukatutako eskaerak

PUNT.	MOTA	ERAKUNDEA	JARDUKETA	ARRAZOIA
—	4	ARAMAIOKO UDALA	Ibarreko hiru kaletako argi publikoen bonbilen ordeztasunak LEDak ipintzea	Aurkeztutako Alkatetzaren dekretua eskaera epeztan dago
—	5	LASIERRAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Lasierrako Administrazio Batzarraren eguzki instalazioaren efizientzia hobetzea	Ez da diruz laguntzekoa oinarri arautzaileen arabera
—	6	SABANDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Sabandoko Administrazio Batzarraren District Heating galdararen aretoa hobetzeko obraren proiektua idaztea.	Ez da diruz laguntzekoa oinarri arautzaileen arabera
—	5	SABANDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA	Sabandoko Administrazio Batzarraren District Heating galdararen aretoa hobetzeko obrak.	Ez da diruz laguntzekoa oinarri arautzaileen arabera